

9. ORDENANTZA FISKALA, AUTOTAXI ETA BESTELAKO AKURA-IBILGAILUEN GARRAIO ZERBITZUAREN GAINEKO TASA

I. ORDAINARAZPENAREN IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak autotaxien eta bestelako akura-ibilgailuen garraio zerbitzuaren gaineko tasa ezarri eta eskatzen du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

Martxoaren 16ko 763/79 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudiak aipatzen dituen autotaxi eta bestelako akura-ibilgailuei dagokienez ondoren adieraziko diren zerbitzu emakida eta jarduerak burutzea da tasa honen zergagaia:

- a) Lizentziak onartzea eta ematea
- b) Lizentziak erabiltzea eta ustiatzea
- c) Ibilgailuak ordeztzea
- d) Lizentziak eskualdatzea

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Ondorengo hauek ditugu, zergadun moduan, zergaren subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 34. eta 35. artikuluetan aipatzen dituen entitateak zeinen izenean onartu eta emango den lizentzia, edo zeinen alde onartzen den lizentziaren transmisioa. Era berean, subjektu pasibo izango da ordeztu den ibilgailuaren lizentziaren titularra, edo ohiko zein ez ohiko ikuskapena egiten zaion ibilgailuaren eta eginbidetutako liburu erregistroen titularra.

IV. ARDURADUNAK

4. ARTIKULUA

a) Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. eta 41. artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen gaineko betebeharrak solidarioak.

b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: elkarteetako administratzaileak eta sindikoak, kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitateko kontuhartzaile zein kitatzaileak.

V. ZERGA KUOTA

5. ARTIKULUA

Tarifak zehazten diren eranskinean adierazitako zenbateko finko batez ezarriko da zerga-kuota.

VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. ARTIKULUA

Tasa honen ordainketan ez da ez hobaririk ez salbuespenik onartuko.

VII. SORTZAPENA

7. ARTIKULUA

Dagokion lizentzia udal honek ematen duen egunean, edo eskualdatzea baimentzen duenean edo ibilgailua beste batez ordeztuko baimena ematen duenean sortuko da tasa eta hori ordaindu beharra.

VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

8. ARTIKULUA

a) Interesdunak hala eskatuta egingo dira tasa hau ordaintzea eskatzen duten jarduerak burutu eta zerbitzuak eman.

b) Udal administrazioak bidezko den likidazioa egingo du eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Dirubilletari buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako epean egingo dute ordainketa zergadunek

IX. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. ARTIKULUA

Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatuaren arabera sailkatuko dira zergei buruzko arau-haustek, bai eta kasu bakoitzari dagokion zehapena finkatuko ere.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

XI. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo



indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK

A) Lizentziak onartzea eta ematea	1.084,00 €
b) Lizentziak erabiltzea eta ustiatzea	23,30 €
C) Ibilgailuak ordeztea.....	23,30 €
D) Lizentziak eskualdatzea	1.084,00 €